2022ZAUN0124

KZ AMAIA AUDITORIOKO EKIPAMENDU ESZENIKOA HORNITZEA ETA INSTALATZEA.-(A)REN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE EQUIPAMIENTO ESCÉNICO DEL AUDITORIO DEL KZ AMAIA.

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK / COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0124

1. KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio teknikoen plegu honen xedea da azpiegituren hornidura eta instalazioa kontratatzeko behar teknikoak definitzea, mekanika eszenikoa, argiztapen eszenikoko sistema bere azpiegiturekin eguneratzea eta ikus-entzunezko sistemak zehaztea, Amaia KZ Antzokiko kultur ekipamenduak behar bezala funtziona dezan.

Espedienteak lehentasuntzat hartzen du azpiegiturak osatzen dituzten elementu guztien zuzkidura osoa, nahiz eta aztertzen ari garen espazio eszenikorako ahalik eta hornidura osoena lortzea duen helburu, material horrekin ahalik eta ekitaldi gehien, tipologia askotakoak, egin ahal izateko.

Irungo Udalak badu proiektu eszeniko bat, eta hortik sortu dira egitura eta mekanika eszenikoko instalazio hauek, dagozkion azpiegiturekin eta ikus-entzunezko sistemekin. Horrenbestez, erreferentziatzat hartu behar da, eta egoki irizten diren aldaketak egin beharko zaizkio, egiten den lanaren ondorioz gerta daitezkeen hobekuntzetan, eskakizunetan edo zehaztapenetan oinarrituta.

Instalazio honen bidez, udalerrian aspaldi samar ezarritako kultur zentro batez hornitu nahi da Irun, baina XXI. mendeko teknologia berriekin hobeto egokiturik eta indarrean dauden araudi berrietara egokiturik.

Gainera, antzerkiaren erabilerarekin bat ez datozen beste edozein ekitaldi mota ere hartu ahal izatea nahi da, eta, horrez gain, bere espazioaren mugen barruan zentro balioaniztun eta moldakor bat lortzea, errendimendu handiagoa eta ekitaldietarako beste aukera batzuk lortzeko aukera emango duena.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 6D4O-2WDY-TOQE-XR57

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Monica Casla Salazar JEFA COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS (09/01/2024 18:04 CET)

2. KOKAPENA ETA ESPAZIOAK

Irungo Udalak Amaia KZ Antzokia dauka, bere auditorioarekin, erakusketa aretoarekin, hitzaldi aretoarekin, dantz aretoarekin... Auditorioan agertokia eta antzerkiaren beharrizanei erantzuten dieten beste espazio batzuk sartzen dira. Mota askotako jende ugari biltzen den lekua da, eta jarduera mota desberdinak eskaini ahal izango ditu ordutegi desberdinetan.

Amaia KZ Pio XII plazan eta López Bexerra kalean dago, Irungo (Gipuzkoa) udalerriaren erdialdean.

Honako hauek ditu barrutiak:

- "Italiar erako" antzoki aretoa: 600 besaulki, 16 metroko ahokadura duen agertokia, 8,80 m-ko hondoarekin, 7 metroko garaierarekin eta 14 x 7 metroko "agertoki biziarekin", 2 metroko sorbaldekin.
- Erakusketa aretoa: hainbat areto ditu, eta 200 m²-ko azalera dauka guztira. Horietan obra plastikoen erakusketak egiten dira, bai pinturakoak edo grafikoak bai eskulturakoak.
- Hitzaldi areto bat: auditoriumeko harmailen azpiko solairuan, 85 lagunentzako lekua duen areto bat prestatu da. Leku hori oso egokia da formatu txikiko kultur hedapenerako jarduerak egiteko, esate baterako, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak, ikus-entzunezkoen proiekzioak eta abar.
- Dantza aretoa: 100 m²-ko aretoa da, eta horrelako lekuek izaten dituzten elementuak dauzka (oreka barrak, ispiluak, oholtza mugikorra, etab.). Bertan hainbat jarduera egin daitezke: gorputz adierazpena, dantza klasikoa eta modernoa, eta euskal dantzak eta abar. Era berean, gelak bere inguru osoan badu behar adinako azpiegitura erakusketa areto gisa erabiltzeko.

3. AURREKARIAK

Gaur egun Amaia KZ antzokia denboraldiko programazioa duen antzoki aktiboa da, jardunean dago. Ia 35 urte joan dira lehen aldiz ideki zenetik.

1990eko abenduaren 13an inauguratu zen, ez du etenik izan programazioak, eta itzal handiko artisten emanaldiak eskaini ditu.

Kontuan izan behar dugu, gainera, ohiko programazioa duen antzoki bat izateaz gain, Irungo biztanleentzako funtzio sozial bat betetzen duela, artista afizionatuek, musikari gazteek, kontserbatorioko ikasleek, antzerki talde ezberdinek, hiriko dantza akademiek eta abarrek Arte Eszenikoen munduan lehen urratsak egin ditzaten.

Era berean, bilerak eta prestakuntza saioak egiteko funtzioa betetzen du, eta zinema proiekzioak eskaintzen ditu.

4. KONTRATUAREN IRISMENA ETA INSTALAZIO PROZESUA

Aurreko atalean, “Aurrekariak”, Amaia KZ jardunean dagoela adierazi da. Horrek esan nahi du hornitzeko eta instalatzeko prozesu osoa antzokiko jarduerarekin eta programazioarekin koordinatuta bideratu beharko dela. Beraz, adjudikazidunak zentroa hornitzeko eta instalatzeko prozesu osoa antzokiko programazioarekin eta beharrekin koordinaturik eta modu antolatuan bideratu beharko duela.

Instalazio lanak egiteko prozesua modu kontzentratuan egin beharko dira, eta segur aski hainbat diziplinatako instalazio batzuk aldi berean egin beharko dira, hornidurak eta giza baliabideak koordinatuta, azpiegitura horiek instalatzeko denbora laburtu ahal izateko; izan ere, mugatua da antzokia jarduerarik gabe dagoen denbora bitartea, eskuarki uda partean.

Lehen adierazitako instalazio baldintzak kontuan hartuta, adjudikaziodunak azterketa, programazio eta koordinazio lanak egin beharko ditu, eta materialak diseinatu, fabrikatu eta metatu beharko ditu barrutian sartu aurretik; izan ere, udan fabrikatzaile askok ez dute ekoizten.

Dagoeneko garatutako proiektu eszenikoa, kontratu honen oinarri dena, bi lote edo ataletan banatzen da, diziplina eszeniko desberdinen arabera:

- Egitura eta mekanika eszenikoak
- Argiteria eszenikoaren eta ikus-entzunezkoen eguneraketa

Honenbestez, espediente honen irismena, alde batetik egitura eta mekanika eszenikoaren diziplinetara mugatzen da, eta, bestetik, argiteria eszenikoa eguneratzera, dagozkion azpiegiturekin eta ikus-entzunezko sistemekin; hala bada, espediente hau 2 lotetan banatu da. Espazio hori behar besteko azpiegituraz eta mekanikako, argiztapen eszenikoko eta ikus-entzunezko ekipamenduz hornitzea da helburua, ekitaldiak egin ahal izateko, Irungo Udaleko Kultura Arloak zehaztutako erabilera programan oinarrituta.

Hortaz, independentea izango da lote bakoitzaren kontratazioa, eta enpresa bati edo batzuei esleitu ahal izango zaie. Adjudikaziodun gertatzen den/diren enpresak/enpresek proiektu eszenikoan jasotako alderdi guztiak konpondu beharko ditu/dituzte, eta teknika onenak, kalitatea, malgutasuna eta espazioaren etorkizuneko beharretara egokitzea baloratuko dira. Bi loteetako kableen eta ekipoen instalazioa gainjartzeko aukera kontuan hartuta, behar-beharrezkoa izango da haien arteko koordinazioa.

Betiere, adjudikaziodunak produktu berriak instalatu beharko ditu, zaharkituta ez daudenak eta egoera ezin hobean, azpiegituretan eta ekipamenduetan. Adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu ekipamendu berriaren edo gaur egun daudenen kalitatea, diseinua edo funtzionamendua aldatzen duten akatsen edo edozein gertaeraren ondoriozko kostu guztiak.

Partida bakoitzerako prezio unitarioan sartuta daude langileen kostuak, garraio gastuak, baliabide teknikoak, baliabide materialak, elementu osagarriak, horniduraren ondoriozko materialak eta sor litezkeen gainerako gastuak.

Lan guztiak behar bezala egiteko behar den material guztia biltegiratzea eta garraiatzea ere sartua dago partida bakoitzaren prezioaren barruan. Era berean, hornitu beharreko materialen eta ekipamenduaren garraioa eta biltegiratzea behar bezalako baldintzetan egin beharko da, hezetasunagatik, kolpeengatik, hautsagatik eta abarrengatik haien kalitatea alda ez dadin.

Jarraian, lizitazioak barne hartzen dituen bi irismenak azalduko ditugu. 1. prezioak espedientearen oinarrizko irismenari egiten dio erreferentzia, eta 2. prezioari, berriz, dauden beharren, dagoen aurrekontuaren eta eskaintzen diren prezio unitarioen arabera ekingo zaio, espazioaren beharrak osatu ahal izateko.

Horren harira, eskaini beharreko ekipamenduaren bi zerrendetan jaso dira baloratu beharreko irismenak: 1. prezioa (oinarrizko irismena) eta 2. prezioa (aukerak-prezio unitarioak). 1. Prezioa gaur egun aurreikusten diren premiak dira, planoaren gainean, kontuan hartuta zentroa eraikita dagoen arren ez dagoela espazioaren neurri zehatzik. Alde horretatik, zerrenda hori izango da 1. Prezioa irizpiderako balorazio ekonomikorako oinarria, eta azkenean kontratatutako unitateak aldatu ahal izango dira. Eskainitako prezio unitarioaren arabera fakturatuko dira unitate horiek. Bestalde, 2. Prezioan (aukerak) jasotako elementuak eta kantitateak eskaini beharko dira, horixek baitira aurreko elementuen aurreko aukerak edo aurreko irismena handitzekoak.

Hala, espediente hau esleitu ondoren, azken zuinketa egingo da, eta erosi beharreko ekipoen guztizko kopurua baloratuko da, adjudikaziodunak eskaera/fabrikazioa egin dezan. Beraz, eskainitako prezio unitarioen eta azkenean eskatutako unitateen arabera kontratatuko da espedientea, eta Irungo Udalak jatorrizko zerrendan sartutako ondasun baten edo batzuen hornidura ez eskatzeko aukera izango du, eta horregatik adjudikaziodunak ez du izango inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik. Era berean, eta horretara behartuta ez egonda ere, Administrazioak eskatu ahal izango du, eta adjudikaziodunak onartu beharko du, egokitzat hartzen badu, jatorrizko zerrendan jasotakoen antzeko ondasunak edo haien kidekoak hornitzea. Kasu horretan, zerrendan eskainitako prezioen arabera finkatuko da prezioa.

5. IRTENBIDE TEKNIKOAREN DESKRIBAPENA

Amaia KZ Antzokiko espazio eszenikoaren proiektu eszenikoaren helburua da eremu hori eguneratutako azpiegituraz eta ekipamenduz hornitzea, aretoa berariaz erabili ahal izateko konfigurazio eta ekitaldi mota desberdinetarako.

Honenbestez, espediente hau egituraren, mekanika eszenikoen eta argiteria eszenikoa eta ikus-entzunezkoak eguneratzeko diziplinetara mugatzen da soilik, eta bi lotetan banatzen da.

I. Orotarikoak

“Aurrekariak” atalean adierazi bezala, jardunean dagoen espazioa da, eta instalazioak eguneratzea, segurtasun gaietan egungo legedia betetzea eta bere gaitasunen barruan ahalik eta balioaniztasun handiena eskaintzea ere. Hala bada, “italiar erako” antzoki areto bat du, dagokion agertokiarekin eta besaulki sailarekin, maldan. Horrek esan nahi du azpiegitura eszenikoen mailan moldakortasun bera eman behar zaiola espazioari.

Espazioak guztira lau sarrera ditu, hiru aretoan, horietako bi hondoan, Pio XII plazatik sartuta eta foyer baten bidez, eta hirugarrena maila beheragoan, alboko López Becerra kaletik, eta beste sarrera bat agertoiaren hondoan.

Auditoriumaren atzeko aldean proiekzio eta kontrol kabina bat dago, eta beste kabina ireki bat aurrekoaren aurrean; gaur egun bertan daude argiak eta soinua kontrolatzeko mahaiak.

Erabilera eszenikorako egiturei dagokienez, eszenatokiak zertxez eta hainbat profilez osatutako errail egiturak dituzte. Horiei esker, besteak beste, argiztapen elementuak eta ekipamendu eszenikoa eseki ahal izango dira, ikus-entzunezkoak aretoaren kasuan, eta haga motorizatu batzuk eszenatokian.

Aretoan, ikus-entzuleak biltzen diren gunearen gainean, bada argiztapen zubi bat, sabaitik eta, azkenik, eskailera batetik irits daiteke bertaraino.

Eszenatokian 19 haga egongo dira guztira, ardatz arte aldakorrekin. Horietatik 6 motordunak izango dira eta gainerakoak eskuzkoak.

Haga motorizatuak elementu astunagoetarako pentsatuak daude, hau da, ikus-entzunezko ekipamendurako eta argiztapenerako. Beraz, gutxienez 500 kg-ko karga ahalmena izango dute haga bakoitzeko. Altzairuzko sareta bikoitzeko hagak izango dira, eta beheko hodiak 50 mm-ko kanpo diametroa izango du.

II. I. lotea

Makineria eszeniko amaitua osatzen duten azpiegitura, ekipamendua eta gainerako azken elementuak hartzen dituztenak dira egitura eta mekanika eszenikoko sistemak. Elementu horiek guztiek ekipamendu eszenikoa goratzea eta esekitzea ahalbidetzen dute, baita, kasu jakin batzuetan, ekipamendu horri eusten dioten elementuak mugituz ere.

Espaziorako ezarritako erabilera anitzeko programaren arabera kalkulatu diren beharrei erantzuten die proposaturiko diseinuak, kokapen zehatzenak eta hoberenak aztertuz eta aukeren aldakortasuna finkatuz diseinurako gidalerro gisa.

Horrela, lizitazio honen xede diren egitura eszenikoei dagokienez, sistema motorizatua finkatzeko profil ijeztu batzuk baino ez dira sartzen.

Haga sistemaren barruan bi sistema tipologia bereizi behar dira aldi berean, alde batetik haga motorizatuak eta, bestetik, eskuzko hagak. Guztira 19 haga hartu ahal izateko moduan landu da proiektua, ardatz arte aldakorrekin. Halere, lizitazio honen irismenak guztira 6 haga motorizatu eta eskuzko haga 1 aurreikusten ditu.

Haga motorizatuen sistema abiadura finkoko 6 sistema motorizatuk osatuko dute. Sistema bakoitzak 4 soka izango ditu, eta altzairuzko kable bihurrituen bidez 12,30 m luzeko hagak igo ditzakete. Hagak hodi profil bikoitzekoak izango dira: goikoa profil karratua, harguneekin, argiztapen eszenikoaren zirkuitu elektrikoei eusteko; behekoa profil zilindrikoa, argiztapen

proiektagailuei eusteko, eta biak altzairuzkoak. Gutxi gorabehera 6,35 m-ko ibilbidea izango dute, eta guztira 500 kg-ko karga ahalmena motor bakoitzeko.

Sistema horrek dagokion kontrol sistema izango du hagen kontrol gune bakar batetik 6 motorrak kontrolatu ahal izateko. Nolanahi ere, BGV 8 plus sistema izan beharko du.

Mantentze lanak eta, matxura kasuetan, konponketak erraz ahalbidetzeko moduan instalatuko dira motorrak, espazioan ez baitago orrazirik, bai ordea goiko aldera iristea ahalbidetzen duen korridorea. Gainera, kontuan eduki beharko da motorrak ainguratzeko sistemaren halako konplexutasuna, izan ere, gune eszenikoa, berez, tratamendu bereziko kutxa akustiko independentea da, eta ondorioz, soilik zulaketa partzialak, puntualak eta oso ongi aztertuak onartzen ditu motorrak barne akaberetan ainguratzeko.

Eszenatokiak goiko aldean zeharkako HEB profilez osatutako errail batzuk ditu haga motorizatuen eta eskuzko hagen txirrika sistemak ainguratzeko. Azken haga hori, antzokiaren gibelaldetik gertuen egongo dena izango da.

Haga hori aluminiozkok izango da, hodi profil bakar batez osatua, haga motorizatuen luzera berarekin, 4 soka bihurriturekin eta bide apur bat luzeagoarekin. Sokak finkatzeko, horiek lotzeko kornamusa bat egokituko da korridorean, gauzatze fasean definituko den altuera erosoan.

Bi kasuetan, haga guztiek izango dute, haga bakoitzeko 4 soka bihurrituetarako txirrika sorta. Txirrika horiek nylonezkoak edo tefloizkoak izango dira, altzairuzko karkasetan sartuta, eta kasu bakoitzaren arabera zehaztutako diametro nominalak, erretenak eta sokak izango dituzte.

Agertokiko oihalek, beren aldetik, kutxa eszenikoko jantzia osatuko dute, hau da, 2. Prezioan aukeratuko diren banbalinek, hankek eta trevira edo artilezko hondo batek osatutako ganbera beltza.

Arestian deskribatutako sistema batzuek elikadura, komunikazioa eta kontrola behar dituzte behar bezala funtzionatuko badute. Horrexegatik, bigarren mailako koadro bat sartuko da korridorean, hormako rack batean. Koadro horretatik elikatuko dira ME-A kutxa guztiak eta haga motorizatuetako motorrak.

Hagen kontrola rack-ean bildutako ekipoa izango da, rack batean instalatuta egongo da.

III. <u>II. lotea</u>

Argiztapen sistema eguneratzeko, funtsean egungo araudira egokitu behar dira kanalizazioak eta kableak, eta indarrean dagoen araudira egoki bekar dira koadroetako hornidura eta patch panelak.

Ikus-entzunezkoei eta kontrol mahaiei dagokien zatia funtsean bideo proiekzioari eta, bigarren maila batean, kontrolei dagokie.

Sistema horiek espazioaren beharrizanei erantzun beharko diete muntaketa ezberdinetan, italiar erako antzokia izango delarik nagusi.

Proiekzioaren eta multimediaren espezialitatearen barruan, aretoan bideo proiekzioko sistema bat dugu, hiru LCD paneleko 16 K-ko bideo proiektore batez osatua, aurreikusitako erabileretako bat zinema dokumentala baita. Eszenatokian, biribilkatuko den pantaila bat dago.

Bideo proiektorea eta pantaila kontrolagailua, eduki irakurgailua barne, agertokiko kontrol kabinan egokituko dira.

Beraz, espazioan bilatzen den balioaniztasunari eta moldakortasunari erantzuten diote azpiegitura horiek. Batez ere konexio kutxek, patch-ek, kableek eta kanalizazioek osatzen dituzte azpiegiturak.

Neurketetan aurreikusitako kanalizazioak adjudikaziodunak egin beharrekoak dira. Lehendik dagoen kanalizazioren batek legedia betetzen badu, berriro erabili ahal izango da, betiere Instalazioko Laguntza Teknikoaren onespenarekin.

Kutxei dagokienez, espazio osoan daude banatuta, hala nola eszenatokian, aretoan, gune teknikoetan, zoru mailan, sabaietan eta hormetan.

kutxa horiek zenbait tipologiatan banatzen dira aurreikusitako erabileraren arabera, eta audio eta bideo seinale, kontrol eta elikadura konexioak dituzte. Kutxa tipologia bakoitza, eduki behar dituen konexio eta konektore espezifikoekin, jarraian deskribatzen diren ekipamenduaren ezaugarrietan eta erantsitako planimetrian deskribatuta daude.

Kutxa horietarako elikadura zirkuitu guztiek, ikus-entzunezkoen rack-etarako (ekipamendua) beharrezkoa den elikadurak bezala, bigarren mailako koadro elektrikoan izango dute abiapuntua, eta koadro hori zenbait tokitan egongo da, planoen arabera.

Konexio kutxetako gainerako lineak rack-etan banatzen dira, patch eta konexio artean, konexio, aurreikusitako erabilera eta kutxaren kokapenaren arabera.

Guztira hiru rack daude argiztapen sistemetarako. Horietako bi eszenatokian egongo dira, eszenatokiko sorbaldan, gibelaldean, eta beste bat kontrol kabinan instalatuko da, argiteria eszenikoko rack ondoan. Rack horiek, adierazi bezala, patch-ak hartuko dituzte argiztapen kutxetako konexioekin batera, arestian deskribatutako DMX kontrol seinaleen sistemetako ekipamenduez, rack-ean bil daitezkeenez, gain.

Kutxetako linea guztietarako kableez gain, tipologia bakoitzeko behar besteko tenkagailuak erabiliko dira sistema guztien funtzionamendu eta erabilera egokia ahalbidetzeko.

IV. Ekipamenduaren ezaugarriak

Jarraian, egitura eta mekanika eszenikoko sistema guztiak osatzen dituzten elementu eta ekipamendu bakoitzak bete beharko dituen ezaugarriak deskribatzen dira, baita argiztapen sistema eta ikus-entzunezkoak eguneratzea ere.

Ezaugarri horien helburu nagusia da elementu bakoitzari eskatzen zioan gutxieneko kalitatea eta funtzionaltasuna ezartzea.

Eskainitako produktua osatzen duten materialen zehaztapenak bete behar dituzte lizitatzaileek. Era berean, dokumentazio teknikoan xehetasun osoz banakatu behar dira produktu bakoitzari berariaz aplikatutako materialak eta tratamenduak, eta ez dira baliozkoak elementu zehatzaren deskribapen generiko ez zehatzak.

Lizitatzaileek elementu bakoitzaren marka eta modelo zehatza eta fabrikatzailearen fitxa teknikoa sartu beharko dituzte beren eskaintzetan.

Jarraian adierazten diren ezaugarri eta bereizgarri teknikoek kontsumo, neurri, pisu eta abarren balio zehatzak ematen dituzte. Ematen diren balio guztiek % ±10 bitarteko tolerantzia eduki ahal izango dute lizitatzaileek proposatutako ekipamenduan.

1. Lotea – Egitura eta mekanika eszenikoko sistemak

OINARRIZKO PREZIOA
EGITURA ESZENIKOA
HAGA DESMUNTATZEA
HAGA DESMUNTATZEA
Egungo haga sistema motorizatua desmuntatzea. Karga hagez, kableez, txirrikez eta kableak biltzeko sistema motordunez eta murriztaileez osatuta daude haga horiek. Torlojuen bidez HEB 200 altzairuzko profilari lotutako txirrikak eskuz desmuntatzea. Egungo motor, kable eta haga blokea desmuntatzea. Baita instalazio horretako azpiegitura elektrikoa, deskonexioa eta baliogabetzea ere. Sail honetan sartzen dira baliabide lagungarri guztiak, material txikia eta jasotzeko bitartekoak. Desmuntatutako materiala jabetzaren esku utziko da udal bulegoetan biltegiratzeko, interesgarria bada, edo birziklatze zentrora bidaliko da, jabetzak hala eskatzen badu.

EGITURA ESZENIKOA
HEB 200 PROFILA
Haga sistema motorizatua esekitzeko pieza bakuna, HEB 200 profilaz osatua, 7,69 m luze, UNE-EN 10025 S275JR ijeztutako altzairuzkoa, beroan ijeztutako profiletan, inprimazio antioxidatzailearekin eta RAL 9005 kolorean pintatuta. Lantegian landuta eta muntatuta, obran torlojuen bidez lotu eta kokatzeko. Planoen arabera eraikiko da. Baita ingeniaritza, torlojuen zati proportzionala. Loturak, pletinak, zorroak, pieza bereziak eta pintura ere. Gauzatutako, amaitutako, eta frogatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Obrako Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.
MEKANIKA ESZENIKOA
HAGA SISTEMA
HAGA ELEKTRIFIKATUA
HAGA ELEKTRIFIKATUA: Barra elektrifikatuko unitatea, RAL 9005 kolore beltzean lakatua, 12,30 m luze, hodi tubular bikoitzak osatua, beheko profilak Ø 50 mm-ko sekzioa duela eta 3 mm-ko lodiera, eta goikoak sekzio karratua, 100x100 mm-koa eta 3 mm-ko lodiera, bi sekzioak 250x80x5 mm-ko pletinez lotuak 80 cm-ro. Haga altzairuzko kableetatik esekitzen da begi torloju eta azkoin kiribildu eta soldatuez osatutako tenkagailuen bidez. Goiko hodia elektrifikatuta egongo da elikadura

linea baten bidez, alde bakoitzean HAN24 eme edo kalitatez eta prezioz baliokide diren bi konektore izango ditu gehi 24 Schuko konektore eme estalkiarekin. Hagaren alde bakoitzak 1,00 m luzeko haga luzakina izango du, bi profilez osatua. Goiko hodiaren profila sekzio karratukoa izango da, 90x90 mm-koa, eta behekoa ere sekzio karratukoa izango da, Ø 42-koa. Altzairuzko luzakina, RAL 3024 kolore gorrian, RAL 9005 kolore beltzean eta RAL 1021 kolore horian lakatua. Planoen arabera eraikiko da. Baita, ingeniaritza, material osagarria, zerbitzuan jartzea, baliabide lagungarriak, lagungarriak, goratzeko baliabideak hala badagokio, material txikiak biltzea eta biltegiratzea, ainguratzeko xaflak eta ainguraketak, loturak, pieza bereziak, pintura, material txikiak eta beste batzuk ere. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

SISTEMA MOTORIZATUA

Haga motorizatu trinkoa goratzeko sistema, honako osagarri hauekin: 14,64 m luzeko konpresio habea, 4 txirrika, altzairuzko kablea, kate bidezko motor puntualarekin, abiadura finkoarekin eta gehienez ere 500 kg-ko kargarekin, minutuan 4 m goratzeko abiadurarekin, BGV D8+ ziurtagiriarekin eta haririk gabeko kontrol sistemarekin. Katearen luzera, 10 m, eta katea biltzeko poltsa. Kontrol koadroa barne. Karga zelula erantsia. IP 55 babes indizea betez. Baita baliabide osagarriak, lagungarriak, goratzeko baliabideak hala badagokio, material txikiak biltzea eta biltegiratzea ere. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

ESKUKO HAGA

ESKUKO HAGA. Altzairuzko haga unitatea, 10,95 luze eta 4 soka bihurriturekin, Ø 50 mm-ko hodi profil batez osatua, 2 mm lodi eta RAL 9005 kolore beltzean. Haga soketatik esekita dago klabu korapiloen bidez eta ondoz ondo egindako kote korapilo bikoitzen bidez, planoen arabera. Hagaren luzera: 6,5 m. Sokak 247x36x52 mm-ko adarbikoen bidez, RAL 9005 kolore beltzean, daude hormari lotuta. Planoen arabera eraikiko da. Barne hartzen ditu sistemaren instalazio mekanikoa, euskarri elementuak eta esekitzeko nylonezko soka beltzak, Ø 10 mm-koak. Baita ingeniaritza lanak, sistema abiaraztea, proiektuaren dokumentazioa eta prestakuntza ikastaroak, bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak hala badagokio, pieza bereziak, pintura eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

BIGARREN MAILAKO KOADRO ELEKTRIKOA

Armairu modularrez osatutako koadroa, IP41 babes mailarekin, EN 60439-1, 60439-3, 50298 eta DIN 43660, 43870, 43880 arauen arabera fabrikatua. 1'50/2 mm-ko altzairuzko xaflazko inguratzailea, eta RAL 9003 koloreko metalezko profilen bidezko aparamenta eta armairuaren euskarria, poliester polimerizatuko elektroforesi eta hauts epoxidikoaren tratamenduarekin. 130º-rainoko irekiera duen atea. Aparamenta honako hauek osatua: 1x Int. mgnt. erregulagarria 4x32 A kurba B, 2xInt. difl. 4x25 A 30 mA SI eta 6xINT. Difl. 2x25 A 30 mA SI. 6xINT. Mgnt 4x6 kurba B, 6xInt. mgnt. Eta 2x6 A kurba B, guztiek UNE-EN 61008, UNE-EN 60947-2 arauei jarraiki, eskema haribakarraren arabera, probekin eta muntatzailearen ziurtagiriarekin. Barne hartzen ditu baliabide osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak hala badagokio, material txikiak biltzea eta gordetzea, eta abar. REBT-aren arabera eraikia. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

2. PREZIOA

TREVIRA OIHAL ESZENIKOAK

HONDOKO OIHALA

Belus beltzezko hondoaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako hanka egiteko % 100ean trevira osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'40 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako C1 mailarekin eta 380 g/m2-ko pisuarekin, RAL 9005 kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Amaiera sinplea alboetan, eta beheko aldean berunezko zorro bat, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Bi piezak osatutako hondoa, bakoitza guztira 14x7,25 metrokoa. Hodiari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez osatua, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak, hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

HANKA

Belus beltzezko hankaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako hanka egiteko % 100ean trevira osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'40 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako C1 mailarekin eta 380 g/m2-ko pisuarekin, RAL 9005 kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Amaiera sinplea alboetan, eta beheko aldean berunezko zorro bat, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Pieza bakarraz osatutako hanka, neurri hauekin: 2'5x7'25 m. Hodiari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez osatua, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak, hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

BANBALINA

Belusezko banbalinaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako banbalina egiteko % 100ean trevira osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'40 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako C1 mailarekin eta 380 g/m2-ko pisuarekin, RAL 9005 kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Amaiera sinplea alboetan, eta beheko aldean berunezko zorro bat, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Guztira 18,00x1,40 m-ko pieza bakarrak osatutako banbalina. Hodiari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez osatua, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak, hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

ARTILEZKO OIHAL ESZENIKOAK

HONDOKO OIHALA

Hondoaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako hondoa egiteko % 100ean artilezkoa den osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'40 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako C1 mailarekin eta 565 g/m2-ko pisuarekin, kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Goiko aldean suaren aurkako zerrendaz amaitura, 20 cm-ro zulatuta, alboetan toles bakunekin lotzeko zerrendekin, eta beheko aldean zorro bat, 10 cm-koa, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Bi piezak osatutako hondoa, bakoitzaren guztizko neurriak hauexek direla: 14x7,25 m. Barrari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.
BANBALINA
Banbalinaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako banbalina egiteko % 100ean artilezkoa den osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'50 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako M1 mailarekin eta 500 g/m2-ko pisuarekin, kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Goiko aldean suaren aurkako zerrendaz amaitura, 20 cm-ro zulatuta, alboetan toles bakunekin lotzeko zerrendekin, eta beheko aldean berunezko zorro bat, 10 cm-koa, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Pieza bakarrak osatutako banbalina, guztizko neurriak hauexek direla: 18'00x1'50 m. Barrari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.
HANKA
Hankaren hornidura. Oihal eszenikoa ganbera beltzerako hanka egiteko % 100ean artilezkoa den osagaiarekin egindako telaren bidez, 1'40 m zabalerako piezarekin, suaren kontrako C1 mailarekin eta 565 g/m2-ko pisuarekin, kolore beltzean. Suaren aurkako lihoaz indartutako 5 cm-ko oihala goiko begietan. Goiko aldean suaren aurkako zerrendaz amaitura, 20 cm-ro zulatuta, alboetan toles bakunekin lotzeko zerrendekin, eta beheko aldean berunezko zorro bat, 10 cm-koa, Ø 50 mm-ko hodia hartzeko. Pieza bakarrak osatutako hanka, guztizko neurriak hauexek direla: 2'5x7'25 m. Barrari finkatzeko sistema du, plastikozko klip eta uhal elastikoaren bidez, hodian malgutasunez konektatzeko, eta errezela azkar eta modu seguruan eseki ahal izateko. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, goratzeko gailuak hala badagokio, eta, dagokion proportzioan, loturak, pieza bereziak, eta material txikiak biltzea eta gordetzea ere. Hornitutako unitate neurtua, esekita probatua eta piezaren altuera neurtua, antzokiko langileek egin beharreko doikuntzak bertatik bertara egiteko. Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

2. lotea – Argiztapen eszenikoko instalazioak eta ikus-entzunezkoak eguneratzea

OINARRIZKO PREZIOA
ARGIZTAPEN ESZENIKOA
ARGIZTAPEN KUTXAK
IE-A MOTAKO KUTXA

IE-A motako argiztapenerako konexio kaxa. Sabaiko habe gainean instalatutako kaxa. 24 konektore eme (gehi lurra) txertagarri dituen polo anitzeko konektorea. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Neurriak: 275x145x100 mm. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea zirkuituak zenbakituta, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez, legeztapena barne.

IE-B MOTAKO KUTXA

IE-B motako argiztapenerako konexio kaxa. Sabaiko habe gainean instalatutako kaxa. Konektore hauexek ditu: 2 XLR-5H eta 2 RJ45. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Neurriak: 137x146x100mm. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea zirkuituak zenbakituta, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez, legeztapena barne.

IE-C MOTAKO KUTXA

IE-C motako argiztapenerako konexio kaxa. Sabaiko habe gainean instalatutako barra, aretoko zubian. Konektore hauexek ditu: 24 Schuko, 2 XLR-5 eme eta 2 RJ45 konektore. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Luzera: 3800 mm. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea zirkuituak zenbakituta, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez, legeztapena barne.

IE-D MOTAKO KUTXA

IE-D motako argiztapenerako konexio kaxa. Eszenatokiko galerian instalatutako barra. Konektore hauexek ditu: 24 Schuko, 1 XLR-5 eme eta 1 RJ45. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Luzera: 2900 mm. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea zirkuituak zenbakituta, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez, legeztapena barne.

IE-E MOTAKO KUTXA

1xXLR-5M eta 1xXLR-5H DMX 512 seinaleko serieko sarrera eta irteerarako eta 1x RJ45. Neurriak: 250x360x593 mm. Pisua: 25'50kg. Barne sartzen dira Ø 48-50 mm-ko hodirako 2 atzapar, segurtasun kablea, eta PowerCon TRUE 1-Schuko konektorea duen elikadura kablea. Hornitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

WASH MOTAKO PROIEKTAGAILU ROBOTIZATUA

Wash motako LED proiektagailu robotizatua, LED RGBW 40 W-eko 7 unitate dituena, 2.500 eta 8.000 °K arteko kolore tenperatura doigarria, 375 VA-ko gehieneko kontsumoa, 4°-tik 55°-ra bitarteko zoom tartea. DMX 512 kontrola, 16/20/28 kanalekin, ethernet ArtNet protokoloarekin eta RDM. 50.000 orduko bizitza zenbatetsia, % 30era iristen ez den argi galerarekin, 540º-ko biraketarekin eta 260º-ko inklinazioarekin. Konexioak: 2xPowercon True1 serieko elikadurarako sarrera eta irteerarekin, 1xXLR-5M eta 1xXLR-5H DMX 512 seinaleko serieko sarrera eta irteerarekin eta 1xRJ45. Neurriak: 224x186x340 mm. Pisua: 6'50 kg. Barne sartzen dira Ø 48-50 mm-ko hodirako atzaparra, segurtasun kablea eta PowerCon TRUE 1-Schuko konektorea duen elikadura kablea. Hornitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

OSAGARRIAK

PROIEKTAGAILUENTZAKO ORGA

Argi proiektagailuak garraiatzeko eta biltegiratzeko orga. Buru mugikorrak, argiztapen barrak edo banakako argiak garraiatzeko aukera ematen du, barretan zintzilik daudenak eta barrak euskarrietan. Alboetan panel zulodun bana du esekitzeko, 2,030x 600 mm-koak, eta metalezko 4 profil luzetara, 2.100 mm-koak, aluminiozko 4 tutu eseki, 2.100 mm-koak, proiektagailuak eta tresnak esekitzeko, eta 100 mm diametroko 4 gurpil (2 balaztekin). Neurriak: 2. 100 x 2. 030 x 600 mm. Pisua: 82'78 kg. Hornitutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

ARGIZTAPENA KONTROLATZEKO SISTEMA

ARGIZTAPENA KONTROLATZEKO MAHAIA

Argiztapena kontrolatzeko kontsola unitatea. 1.024 kanalerako kontrola, 1.024 kontrol irteera arteko interkonexio patch-a, 10.000 sekuentzia urrats, 100 orrialdeko 999 submaster. 4x1.000 kontrol paleta bitarte proiektagailu robotizatuentzat, 1.000 efektu eta makro talde eta 1.000 snapshot, kurbak eta kolore bideak. Egoera solidoko SSD disko gogorra, 100 mm-ko bi potentziometro eta kontrol fisikoa duten 40 submaster ditu, stop eta go teklen bidez. Kanpoko 2 monitorerentzako (HDMI) irteera. Konexioak: 5x USB-A 3.1, 2x USB-C 3.1, 2x RJ-45, 4x XLR5-H DMX 512, RDM funtzioarekin, kontaktuen itxiera Sub-D konektorearen bidez, sarrerako eta irteerako OSC ataka. Kanpoko gatewaya SMPTE konexiorako, kontaktu itxierak, SN-232 ataka eta MIDI, MIDI Showcontrol eta MIDI Timecode komunikazioa. Elikadura unibertsala 100-240 V. Neurriak: 868x361x111 mm. Pisua: 7'30 kg. Barne sartzen da beltxarga lepoko LED linterna. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

24"-ko UKIPEN MONITOREA

24”-ko ukipen monitorea, LED pantaila diagonala 60'50 cm-koa, erantzun denbora 4 ms, distira 250 cd/m2, bistaratze teknologia IPS, kontrastea 1.000:1, touchscreen teknologia eta bereizmena 1.920x1.080, 16:9 erlazioa. Konexioak: 1xUSB-A 3.0, 1xHDMI, 1xVGA eta 1x Audio IN 3'5 mm. Elikadura: 100-240V, 24W (0,5W lanean ari ez denean). Neurriak: 540,50x322,50x46,50 mm. Pisua: 5,50 kg. Barne sartzen dira elikadura kablea, HDMI, USB eta VGA. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

2022ZAUN0124

AUDIOA KONTROLATZEKO ETA KUDEATZEKO SISTEMAK

ESZENATOKIKO MONITOREA

Eszenatokiko monitore autoanplifikatua, 8”-ko konoko bi bozgorailurekin beheko aldean eta goikoan 3”-ko konpresio motorrarekin. D motako 3 anplifikadore kanalekin. Pisua: 20,4Kg. Neurriak: 474x322x472 mm. Barne sartzen dira, osagarriak, bitarteko lagungarriak, laguntza, material txikiak pilatzea eta biltegiratzea, igogailuak hala badagokio, etab. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

ESZENATOKIKO MONITORE MAHAIA

Soinu mahaia. Nahasketetarako kontsola 21 fader-ekin, 10eko 2 sekziorekin gehi maisu 1ekin. Sekzio bakoitzak 10 kanaletako 6 banku geruza ditu. Sarrerako 48 kanal malguko matrizea, osagarri malguen azpimultzoko 16 bus-ekin, 1 Master BusLR-kin eta 2 Solorekin; eta 10 sarrera eta 8 irteerako prozesamendu osoko matrize bat, 21 ekualizadore dinamikorekin, esleitu daitezkeen 21 konpresore multibandarekin, 8 efektu digitalekin eta esleitu daitezkeen 16 ekualizadore grafikorekin. Adierazitako fader-ak ditu aurreko panelak, ukipenaren aurrean sentikorrak diren 26x kontrol birakari, 10”-ko 2 multiukipen pantaila, ¼”-ko Jack 1 eta1x3’5 mm-ko Jack-a entzungailuetarako, eta USB 2.0 bat. Atzeko panelak 24xXLR-3M ditu audio/mikrofono sarreretarako, 12xXLR-3H audio irteeretarako, 1xXLR-3M eta XLR-3H AES/EBU sarrera eta irteeretarako, 1/4"-ko Jack bat GPI-rako, 1/4"-ko Jack bat GPOrako, 2xRJ45 Ethernet konexiorako, DVI bat kanpo monitorearekin konektatzeko, 2xUSB 2. 0, 2xBNC Word Clock sarrera eta irteera konexiorako eta 2x zulo handitzeko txarteletarako. Barne hartzen ditu 2 x RJ45 konexio bakoitzeko 32 E/S bitarteko igorpen eta harreretarako, D-Rack 1 PSU, DMI Madi CAT5 txartela, CAT6 kablea 75,00 m-ko luzerarekin, 8 irteera analogikorako txartela D-Rack-erako, eta zorro bat. Neurriak: 763x586x295 mm. Gehieneko pisua: 19 kg. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, material txikiak biltzea eta gordetzea, goratzeko gailuak, hala badagokio, eta abar. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

PA SOINU MAHAIA

Soinu mahaia. Nahasketetarako kontsola 21 fader-ekin, 10eko 2 sekziorekin gehi maisu 1ekin. Sekzio bakoitzak 10 kanaletako 6 banku geruza ditu. Sarrerako 48 kanal malguko matrizea, osagarri malguen azpimultzoko 16 bus-ekin, 1 Master BusLR-kin eta 2 Solorekin; eta 10 sarrera eta 8 irteerako prozesamendu osoko matrize bat, 21 ekualizadore dinamikorekin, esleitu daitezkeen 21 konpresore multibandarekin, 8 efektu digitalekin eta esleitu daitezkeen 16 ekualizadore grafikorekin. Adierazitako fader-ak ditu aurreko panelak, ukipenaren aurrean sentikorrak diren 26x kontrol birakari, 10”-ko 2 multiukipen pantaila, ¼”-ko Jack 1 eta1x3’5 mm-ko Jack-a entzungailuetarako, eta USB 2.0 bat. Atzeko panelak 24xXLR-3M ditu audio/mikrofono sarreretarako, 12xXLR-3H audio irteeretarako, 1xXLR-3M eta XLR-3H AES/EBU sarrera eta irteeretarako, 1/4"-ko Jack bat GPI-rako, 1/4"-ko Jack bat GPOrako, 2xRJ45 Ethernet konexiorako, DVI bat kanpo monitorearekin konektatzeko, 2xUSB 2. 0, 2xBNC Word Clock sarrera eta irteera konexiorako eta 2x zulo handitzeko txarteletarako. Barne hartzen ditu 2 x RJ45 konexio bakoitzeko 32 E/S bitarteko igorpen eta harreretarako, D-Rack 1 PSU, DMI Madi CAT5 txartela, CAT6 kablea 75,00 m-ko luzerarekin, 8 irteera analogikorako txartela D-Rack-erako, eta zorro bat. Neurriak: 763x586x295 mm. Gehieneko pisua: 19 kg. Barne hartzen ditu bitarteko osagarriak, laguntzak, material txikiak biltzea eta gordetzea, goratzeko gailuak, hala badagokio, eta abar. Instalatutako, amaitutako eta probatutako unitate neurtua, Zuzendaritza Eskudunak eta Instalazioko Laguntza Teknikoak aurrez onartutako txostenean, planoetan eta pleguan emandako zehaztapenak betez.

6. BALDINTZA OROKORRAK

Proiektuaren irismenak barne hartzen ditu xehetasun azterlana, hornidura, instalazioa, garraioa, konfigurazioa, probak eta prest jartzea, bai eta dokumentazioa eta Jabeak izendatutako erabiltzaileentzako prestakuntza ere. Instalazioa bukatutakoan, instalatutako guztia behar bezala dabilela ziurtatuko da, lehendik dauden instalazioetan edo une horretan instalatzen ari direnetan kalterik edo hondamenik eragin gabe.

Lan guztiak udal teknikariekin koordinaturik egingo dira, bai eta obren egungo egikaritzean eta denboran bat etor daitezkeen beste instalazio eszeniko batzuen egikaritzean inplikatutako eragile guztiekin ere.

Barrutiaren baldintzak instalazioa egin aurretik egiaztatuko dira, eta aurkitutako aldaketei edo oztopoei buruzko txostenak bidaliko zaizkio berehala Zuzendaritza Eskudunari eta/edo Antzokiko Laguntza Teknikoari. Lanak ahalik eta modurik eraginkorrenean egingo dira, eta dena ahalik eta baldintza onenetan utziko da, garbi eta jasota, lan bakoitza amaitzean; izan ere, jardunean dagoen zentroa da.

Eskainitako produktuaren laginak bidaltzeko eskatu ahal izango du Irungo Udalak, behar diren kalitate azterketak egin ahal izateko, erakunde horri inolako gasturik eragin gabe. Era berean, lizitatzaileek instalazioetara bisitak egin ahal izango dituzte, eskainitako ondasunen ezaugarriak egiaztatzeko.

Irungo Udalak eskubidea du edozein produkturi edo materiali egokitzat hartzen dituen saiakuntzak egiteko. Saiakuntza horiek esleipena indarrean dagoen bitartean ere eskatu ahal izango dira, eta betiere enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Produktuen kalitatea egiaztatzetik etorritako gastu guztiak lizitatzaileen eta/edo adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Horniduraren kalitate eta trazabilitate prozesu gisa, adjudikazaiodunak, hornitu beharreko elementu bakoitzerako, MOO (Materiala Onartzeko Orria) izeneko dokumentua entregatuko du aldez aurretik. Dokumentu horren eredua eta edukia kontratuaren arduradunak eta Obrako Laguntza Teknikoak erabakiko dute, baimendutako sinaduren bidez, kontratuaren item bakoitza onar dadin, eta lizitazioaren unean sortutako baldintzengatik (fabrikatzaileak iragarri ez duen zaharkitzea, fabrikatzailearen edo delako modeloaren jarraitutasunik eza, kontratatutako berme urteak bermatu ezin izatea…) eguneratu behar diren elementuak eguneratu daitezen. Ez da onartuko aldez aurretik dagokien MOOa ez duten elementuak hartzeko aktarik.

Instalazio lanak modu seguruan eta osoan egingo dira, bernoekin, azkoinekin, zirrindolekin, presilekin, burdineriarekin, euskarriekin eta instalazio eta eragiketa egokietarako behar diren beste elementu guztiekin.

Instalazioak behar bezala bukatzeko behar diren osagarri guztiak kostu gehigarririk gabe hornitu eta muntatuko ditu adjudikaziodunak. Beraz, deskribatutako elementuen prezio unitarioetan zati proportzional gisa sartuta daudela interpretatuko da.

Gainera, esekita egongo diren elementu/ekipamendu guztietarako, egituran ainguratze segurua egin beharko da, eta, horrenbestez, aurreikusitako helbururako homologatutako finkatze elementuak erabiliko dira. Nolanahi ere, behar adinako ahalmena duten ainguraketak eta euskarriak erabiliko dira, eta fabrikatzaileak gomendatutako edo obrarako laguntza teknikoak eskatutako elementu guztiak sartuko dira.

Hagetan edo antzekoetan esekitako ekipamendu guztiek altzairuzko segurtasun kableak izango dituzte, neurri egokiekin.

Egitura eta bastidore guztiak lur potentzial berera jarrita egongo dira, IT-BT-18 jarraibidearen arabera ezarritako lur elektrikoko hargune orokorrera konektatuta, eta, horretarako, aipatutako sarera konektatzeko terminal bat izango dute.

Barneko kableak fabrikan eginak izango dira, eta argi eta garbi identifikatuta egongo dira. Instalazioko konexio guztiak konektorearekin, konexio erregletarekin, soldadurekin edo aurrez zehaztutako beste gailu batzuekin egingo dira. Terminalarekin edo aurrez isolatutako muturrarekin babestuta egongo dira kable muturrak, beharraren arabera. Konexio erregletak argi eta garbi etiketatuko dira terminalen izendapenekin.

Kable guztiak konektatu eta finkatuko dira. Ez dira onartuko kable solteak edo trazadura nahaspilatua dutenak. Deribazio edo erregistro kutxa guztietan, kable guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira. Soberan gelditzen diren kableak ez dira moztuko, luzera egokian utziko dira etorkizunean erabiltzeko, eta erreserba gisa identifikatuko dira.

Zirkuitu guztiak jatorrian babestuta egongo dira gainkargen edo zirkuitulaburren ondorioz zirkuituan ager daitezkeen gain-intentsitateen ondorioen aurka. Eroaleen zeharkako sekzioa hautatzeko orduan, kontuan hartuko da zirkuituak behar den denboran eten behar duela, MIE BT-020 jarraibidearen arabera.

Zeharkako kontaktuen aurka behar bezala babesteko, oinarri emeak erabiliko dira behe tentsioko entxufe guztietan, instalazioko zati aktiboak urrundu egingo dira eta ustekabeko kontaktua ezinezkoa den distantzietan jarriko dira, eta isolamendu egokiaren bidez estaliko dira instalazioaren zati aktiboak.

Konexio guztiak terminalaren edo aurrez isolatutako muturraren bidez egingo dira. Koadroetako kable guztiak, pasaerakoak zein amaierakoak, behar bezala kodifikatuta, zenbakituta eta/edo argi eta garbi markatuta egongo dira.

Koadro elektriko guztiek aluminioan kopiatutako krokis bat eraman beharko dute barrualdean, dagokion konexio diagramarekin. Bertan, argi eta garbi identifikatuko dira haren osagai guztiak eta konexio kodea.

7. BERMEA

Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako erantzukizun zibila alde batera utzi gabe, kontratu honen berme epea bi urtekoa izango da, gehi enpresa lizitatzaileak eskainitako gehikuntza, hala badagokio.

Berak egindako lana bermatuko du esleipendunak, bai eta elementu/ekipamendu guztien kalitatea eta funtzionamendu egokia ere, gutxienez bi urtez (irizpide baloragarria izango da eskainitako berme epea luzatzea), hornidura jasotzen den egunetik hasita, eta ordezko piezak eskuragarri egongo dira gutxienez bost urtez. Berme hori aplikatu ahal izango da fabrikazioko, instalazioko, hardwarearen konfigurazioko edo softwareko edozein akats zuzentzeko.

Aipatutako berme aldi horretan, lehenbailehen zuzendu edo konpondu beharko du hornidurako edo instalazioko akatsei edo erabilitako materialen edo elementuen kalitate txarrari egotz dakiokeen edozein anomalia, instalazioen funtzionamendurako kalterik eragin gabe, Irungo Udalak eta Obrako Laguntza Teknikoak horren harira ematen dizkioten aginduak kontuan hartuta, eta horiek ez baditu betetzen edo betetzen atzeratzen bada, Jabeak, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez, behar diren lanak egin ahal izango ditu akats edo huts horiek konpontzeko, eta ordaintzeke dauden ordainketetatik edo abal edo bermeetatik kenduko dira dagozkien gastuak, eta horrek ez du esan nahi adjudikaziodunak berme erantzukizunari uko egiten dionik.

Berme epean konpondu behar diren unitateek urtebeteko beste berme aldi bat izango dute adjudikaziodunarentzat, konponketa jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Eskaintzan adierazi beharko da bermean sartzen diren zerbitzuen irismena, bai eta saldu osteko arretaren prozesuak eta metodologia ere. Bereziki deskribatu beharko dira sistemaren erabilezintasuna murrizteko abian jarri diren ekintzak (ordezko piezen stocka, antzeko elementuekin aldi baterako berritzea…).

8. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

I. Baliabide teknikoak

Adjudikaziodunaren betebeharra izango da behar diren baliabide materialak eta teknikoak jartzea, espediente honen xede diren lanak behar bezala egiteko behar diren programak barne (hardwarea, softwarea, altzariak, komunikazio sistemak, tresnak, etab.).

Era berean, adjudikaziodunak biltegi bat izan beharko du kontratu honen xede den ekipamendua egoera onean gordetzeko adinako edukiera duena, harik eta esparruan hornitu eta instalatu arte. Baliteke Jabeak eskatzea hornitzeko prest dagoen ekipamendua adjudikaziodunaren biltegian gordeta edukitzeko, baldin eta antzokiaren edo beste instalazio eszeniko batzuen okupazio kontuengatik oraindik egokia ez bada ekipamendu hori behin betiko instalatzea.

Sortzen den dokumentazio guztia euskarri informatikoan egin beharko da eta formatu editagarrietan entregatu, Jabeak edo Obrako Laguntza Teknikoak hala eskatzen badu.

II. Giza baliabideak

Adjudikaziodunak lanak egiteko izendatutako taldeak behar adinako esperientzia, ezagutza eta prestakuntza izan beharko ditu. Aipatutako lanak egiteko, adjudikaziodunak horrelako proiektuak garatzen esperientzia frogatua duten langileak jarriko ditu instalazioaren eskura.

Irungo Udalak askatasun osoz eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari bere langileren bat berehala aldatzeko, baldin eta erakunde horrek uste badu haietako batek ez dituela lanak behar bezala egiten edo ez dela erabat egokitzen esleitutako lanen edukira, eta horrek ez dio kostu handiagorik eragingo Irungo Udalari.


Era berean, adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da atzerapenei, absentziei, gaixotasunei, oporraldiei edo bestelako gorabeherei buruzko arazoak konpontzea.

Edozein arrazoi dela medio, adjudikaziodunak kontratu honi esleitutako langileak ordezkatu behar baditu, horrek ez du eragin negatiborik izango emandako zerbitzuan, eta soilik bere kontura izango dira egindako ordezkapenak.

Lote bakoitzerako ezartzen diren giza baliabideetatik, bi loteetara aurkezten den lizitatzaileak pertsona berari kargu bera esleitu ahal izango dio lote bakoitzean, inoiz ez kargu desberdinak. Hau da, Proiektuburua/Koordinatzailea pertsona bera izan daiteke 1. loterako eta 2. loterako.

i. 1. Lotea – Egitura eta mekanika eszenikoko sistemak

Ondoren, adjudikaziodunak kontratua behar bezala gauzatzeko eskura jarri beharko dituen gutxieneko giza baliabideen organigrama azaltzen da, bai eta enpresa adjudikaziodunaren taldearen, Jabearen eta Obrako Laguntza Teknikoaren artean izango den komunikazio fluxua ere.



Irudian ikusten den bezala, taldeak Proiektuburu/koordinatzaile bat izango du. Pertsona horrek aurretik esperientzia izango du lan berdinetan edo antzekoetan. CVa aurkeztuta froga daiteke esperientzia hori. Pertsona hori izango da solaskide nagusia Jabearekin eta Obrako Laguntza Teknikoarekin, eta bera arduratuko da proiektuaren faseen dokumentuen kudeaketaz eta koordinazioaz, bai eta beste kontratu batzuetako beste partida batzuk gauzatzen ari diren enpresa kontratistekiko koordinazioa modu egokian egiteaz ere. Pertsona horrek joan beharko du kontratuaren gauzatzearen jarraipena egiteko deitzen diren bileretara.

Bestalde, arduradun tekniko bat egongo da, eta proiektuburuarekin erabat koordinatuta egon beharko du. Haren eginkizunak izango dira gainerako talde teknikoa koordinatzea eta gainbegiratzea, Proiektuburuak aldez aurretik ezarritako jarraibideen arabera. Pertsona horrek, Proiektuburuaren aldean, dedikazio askoz ere handiagoa izango du hornidura lekuan, proiektuburuak bisita puntualak egingo baititu beharren arabera; Arduradun teknikoak, berriz, hornidura eta instalazio lekuan egon behar du denbora gehienean, sortzen diren arazoak eta ezustekoak konpontzeko, aurrerapenak eta beste gainbegiratzeko. Noizbehinka, Proiektuburuarekin batera jarraipen bileraren batean egoteko eskatu ahal izango zaio. Gainera, Arduradun teknikoak harreman estua izango du Obrako Laguntza Teknikoarekin, telefonoz eta posta elektronikoz, gorabeherak konpontzeko, gaiak in situ zehazteko, lanak aurreratzeko eta abarrerako.

Era berean, Mekanikaburu bat eta Elektrizitateburu bat egongo dira lantalde teknikoan. Horiek izango dira, kasu bakoitzean, gainerako taldearen gainbegiraleak eta arduradunak. Ezarritako epean kontratua behar bezala betetzeko behar adina muntaketa teknikari eta laguntzaile eta elektrikari izango dira lantalde horretan. Bi buru edo arduradun horiek antzeko lanetan esperientzia izan beharko dute aldez aurretik, eta arduradun teknikoari aurrerapen guztien berri eman beharko diote beti. Espediente honen xede diren partida guztiak behar bezala erabiltzea izango da haien eginkizuna. Lizitatzaileek proiektuaren organigrama aurkeztu beharko dute, eta pertsona jakin bat izendatu beharko dute proiektuburu/koordinatzaile, arduradun tekniko, mekanikaburu eta elektrizitateburu izateko, eta haien CVak aurkeztu beharko dituzte eta antzeko obra eta espazio eszenikoetan egindako proiektuen xehetasunak eman behar dituzte.

Era berean, organigraman zehaztu egin behar da lantaldearen gainerakoan zenbat teknikari egongo diren gutxienez, baina ez da beharrezkoa pertsona horiek zehazki izendatzea. Ezarritako gutxieneko kopuru hori kontratuko betebeharra izango da adjudikaziodunarentzat.

Arestian deskribatutako lanpostu horietako bakoitza teknikari desberdin batek bete beharko du nahitaez.

Eskatzen da hornidurari eta instalazioari modu iraunkorrean atxikitzea, hasieratik amaitu arte, Proiektuburua eta organigraman deskribatutako Arduradun teknikoa. Gainerako langileak, berriz, beren zeregin espezifikoak egiten dituzten bitartean dute atxikita egoteko obligazioa.


Teknikarien parte hartzea kontratuaren funtsezko betebeharra da, eta teknikari horiek kontratua betetzeko epe osoan eta hitzartutako dedikazio mailarekin parte hartuko dutela adierazten duen konpromisoa hartu beharko du adjudikaziodunak bere eskaintzarekin batera, hala nola aipatutako teknikariek behar bezala sinatutako atxikipenaren onespena.

Proiektu buruak-koordinatzaileak gutxienez 10 urteko esperientzia egiaztatu beharko du antzeko lan eta proiektuetan, eta Mekanika eta Elektrizitateko arduradunek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko lanetan.

CV profesionalaren bidez egiaztatuko da esperientzia. Egoki baderitzo, CVetan adierazitako esperientzia egiaztatzen duten agiriak edo ziurtagiriak eskatu ahal izango ditu Jabeak.

ii. II. Lotea – Argiztapen sistema, azpiegiturak ea ikus-entzunezko sistema eguneratzea

Ondoren, adjudikaziodunak kontratua behar bezala gauzatzeko eskura jarri beharko dituen gutxieneko giza baliabideen organigrama azaltzen da, bai eta enpresa adjudikaziodunaren taldearen, Jabearen eta Obrako Laguntza Teknikoaren artean izango den komunikazio fluxua ere.



Irudian ikusten den bezala, taldeak proiektuburu/koordinatzaile bat izango du. Pertsona horrek aurretik esperientzia izango du lan berdinetan edo antzekoetan. CVa aurkeztuta froga daiteke esperientzia hori. Pertsona hori izango da solaskide nagusia Jabearekin eta Obrako Laguntza Teknikoarekin, eta bera arduratuko da proiektuaren faseen dokumentuen kudeaketaz eta koordinazioaz, bai eta beste kontratu batzuetako beste partida batzuk gauzatzen ari diren enpresa kontratistekiko koordinazioa modu egokian egiteaz ere. Pertsona horrek joan beharko du kontratuaren gauzatzearen jarraipena egiteko deitzen diren bileretara.

Bestalde, Arduradun tekniko bat egongo da, eta Proiektuburuarekin erabat koordinatuta egon beharko du. Haren eginkizunak izango dira gainerako talde teknikoa koordinatzea eta gainbegiratzea, Proiektuburuak aldez aurretik ezarritako jarraibideen arabera. Pertsona horrek, Proiektuburuaren aldean, dedikazio askoz ere handiagoa izango du hornidura lekuan, proiektuburuak bisita puntualak egingo baititu beharren arabera; Arduradun teknikoak, berriz, hornidura eta instalazio lekuan egon behar du denbora gehienean, sortzen diren arazoak eta ezustekoak konpontzeko, aurrerapenak eta beste gainbegiratzeko. Noizbehinka, Proiektuburuarekin batera jarraipen bileraren batean egoteko eskatu ahal izango zaio. Gainera, Arduradun teknikoak harreman estua izango du Instalazioko Laguntza Teknikoarekin, telefonoz eta

posta elektronikoz, gorabeherak konpontzeko, gaiak in situ zehazteko, lanak aurreratzeko eta abarrerako.

Era berean, talde teknikoa honako hauek osatuko dute: Audio Sistemen buruak, Bideo Sistemen buruak eta Elektrizitate/Argiztapen Eszenikoko buruak. Horiek izango dira, kasu bakoitzean, gainerako taldearen gainbegiraleak eta arduradunak. Ezarritako epean kontratua behar bezala betetzeko behar adina muntaketa teknikari eta laguntzaile eta elektrikari izango dira lantalde horretan. Buru edo arduradun horiek antzeko lanetan esperientzia izan beharko dute aldez aurretik, eta arduradun teknikoari aurrerapen guztien berri eman beharko diote beti. Espediente honen xede diren partida guztiak behar bezala erabiltzea izango da haien eginkizuna.

Lizitatzaileek proiektuaren organigrama aurkeztu beharko dute, eta pertsona jakin bat izendatu beharko dute Proiektuburu/koordinatzaile, Arduradun tekniko, audio sistema Buru, bideo-sistemetako buru eta elektrizitate/argiztapeneko buru izateko, eta haien CVak aurkeztu beharko dituzte, antzeko obra eta ingurune eszenikoetan duten esperientziarekin.

Era berean, organigraman zehaztu egin behar da lantaldearen gainerakoan zenbat teknikari egongo diren gutxienez, baina ez da beharrezkoa pertsona horiek zehazki izendatzea. Ezarritako gutxieneko kopuru hori kontratuko betebeharra izango da adjudikaziodunarentzat.

Arestian deskribatutako lanpostu horietako bakoitza teknikari desberdin batek bete beharko du nahitaez.

Eskatzen da hornidurari eta instalazioari modu iraunkorrean atxikitzea, hasieratik amaitu arte, Proiektuburua eta organigraman deskribatutako Arduradun teknikoa. Gainerako langileak, berriz, beren zeregin espezifikoak egiten dituzten bitartean dute atxikita egoteko obligazioa.

Teknikarien parte hartzea kontratuaren funtsezko betebeharra da, eta teknikari horiek kontratua betetzeko epe osoan eta hitzartutako dedikazio mailarekin parte hartuko dutela adierazten duen konpromisoa hartu beharko du adjudikaziodunak bere eskaintzarekin batera, hala nola aipatutako teknikariek behar bezala sinatutako atxikipenaren onespena.

Proiektu-buruak/koordinatzaileak gutxienez 10 urteko esperientzia egiaztatu beharko du antzeko lan eta proiektuetan, eta sistema-buruek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko lanetan.

CV profesionalaren bidez egiaztatuko da esperientzia. Egoki baderitzo, CVetan adierazitako esperientzia egiaztatzen duten agiriak edo ziurtagiriak eskatu ahal izango ditu Jabeak.

9. INGURUMEN BALDINTZAK

Nahitaez bete behar da indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako edozein motatako hondakinen kudeaketa eta tratamendu egokia.

Ingurumen ikuspegitik, gutxienez honako ezaugarri hauek izango ditu ekipamenduak:

- Bilgarriak material birziklagarriz (papera, kartoia, polietilenoa, polipropilenoa, poliestirenoa) egina izan behar du. Bilgarriek material bat baino gehiago eraman ditzake, baldin eta eskuz eta erraz bereiz badaitezke material bakarreko zatietan.
- Hornidurari eta instalazioari dagokienez, enpresa adjudikazioduna arduratuko da instalatzen diren bitartean sortutako hondakinak behar bezala bildu eta kudeatzeaz, eta ekipamenduak hornitzean eta jartzean sortutako bilgarriei azken kudeaketa egokia emateko konpromisoa hartuko du, hondakin horien gaikako bilketa bermatuz gutxienez.
- Adjudikaziodunak languneen garbitasuna bermatuko du, jardunean dagoen barrutia izanik hondakin eta hauts gehiegi pilatzea saihestu behar baita.

10. SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Adjudikaziodunak behar bezala aseguratuak edukiko ditu bere kargu dituen langileak, Lan Zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren alorretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko legeak, lan kontratua eta proiektuaren exekuzioa kontratatzean gai horri buruz indarrean dagoen beste edozein araudi.

Adjudikaziodunak norbera babesteko eta babes kolektiborako behar diren ekipamendu guztiak emango dizkie langileei, langile horien eta instalazioan dauden hirugarrenen segurtasuna ziurtatzeko beren jardueratik etorritako arriskuen aurrean. Laneko segurtasunaren eta higienearen alorrean indarrean dauden xedapenak hertsiki beteko dira.

Adjudikaziodunak epe jakin batean eremu jakin batzuetarako sarbidea mugatu behar badu bere lana behar bezala egiteko eta espazioan esku hartzen duten beste eragile batzuen segurtasuna bermatzeko, aldez aurretik jakinarazi beharko die Jabeari eta Antzokiari atxikitako langileei, behar bezala koordinatu ahal izateko, betiere lan fluxu orokorra eta langile guztien segurtasuna bultzatuz.

Adjudikaziodunaren erantzukizuna da Segurtasun eta Osasun Planean zehaztutako prebentzio neurriak betetzea, eta neurri horiek ez betetzeak dakartzan ondorioei erantzutea.

11. BISITA INSTALAZIOETARA

Beharrezkoa bada eta kontuan izanik Amaia KZ Antzokia urteko programazioa sortzeko prozesuan murgilduta dagoela, instalazioak bisitatzeko eskatu ahal izango da. Bisitaldi hori betiere jabeak eta antzokiko teknikariek eraikinean sartzeko baimena ematen badute egingo da. Bisita hori posta elektronikoz eskatu beharko da (compras@irun.org) helbidean, eskaintzak aurkezteko epea baino 5 egun baliodun lehenago gutxienez.

12. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Irungo Udalak bere plantillako teknikari bat izendatuko du kontratuaren arduradun. Teknikari horrek lanen jarraipena eta kontrola egingo ditu, baldintza plegu honen irizpide eta ildo orokor osagarriak ezarriko ditu eta kontratuaren edukiak behar bezala betetzen direla zainduko du. Kontratuaren zuzendaritza hori teknikari batekin edo gehiagorekin parteka daiteke. Teknikari horiek aipatutako arduradunak proposatuta izendatuko dira.

Oro har, kontratuaren arduradunaren eginkizunak izango dira, Legean ezarritakoez gain, lanen koordinaziotik etorritakoak, bai eta kontratuan ezarritako baldintzak egiaztatzea eta zaintzea ere.

Ondorio horietarako, kontratua gauzatzen den bitartean, hornidura eta instalazioa ikuskatu ahal izango ditu fabrikatzen eta gauzatzen den bitartean, bai eta instalazioa ere, behin bukatutakoan beharrezkotzat jotzen duen aldi guztietan, eta lana behar bezala kontrolatzeko egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango du halaber.

Horretarako, sarrera librea izango du, eta adjudikazioduna behartuta egongo da bisitaldia erraztera, bai eta beharreko jarduketak egiteko behar diren baliabideak ematera ere.

Kontratua gauzatzen duen bitartean Jabeak eskatzen dizkion agiri eta zehaztapen guztiak aurkeztuko ditu adjudikaziodunak. Adjudikaziodunak, edo haren mendeko pertsonek, kontratuaren martxa egokia arriskuan jarri edo nahasten duten ekintzak edo omisioak egiten badituzte, Irungo Udalak neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu ahal izango du hitzartutakoa berriro bere onera ekarri ahal izateko.

Era berean, kontratuaren arduradunak, argiztapen eszenikoa hornitu eta instalatu bitartean edozein fasetan, onartutako proiektuaren xede eta helburuetarako egokitzat jotzen dituen proposamen eta iradokizunak egin ahal izango dizkio adjudikaziodunari. Horiek ez dute, inola ere, kontratuaren xedea aldatuko.

Adjudikaziodunak kontratuaren zuzendaritzak deitzen dituen bilera guztietara joan beharko du, eta ematen zaizkion iradokizun eta gomendio guztiak kontuan hartu beharko ditu.

Irunen, sinatu den datan,

Erosketa eta Ekipamendu burua,
Mónica Casla Salazar

ERANSKINA I - PROIEKTU ESZENIKOAREN PLANOAK